

KONTU-KONTARI**NOCAUT!****BAT**

Kanpaiak eman dio, berriro, hasiera. Ez zakiat zenbatgaren rounda den. Ezker ukabila luzatu diot adi dagoen ikusteko. Dantzan hasi gara barne-musikak aginduta. Kolpe-keinu okerrak luzatzen dizkik alu horrek. Nora eraman nahi nauen ezagutzen dudala uste diat. Redios! Gogor eman zidak, ezker-rra sartu dik behetik gora. Eskerrak matrailean ez den izan. Lasai hartu ezak, ezin duk lehen kolpean jausi. Hurbil hadi eta ikusiko duk zer den ondo emandako ukabilkada. *Ikasten jarraitu behar duk, seme, ofizio bat besterik ez bada ere.* Pentsatu, horixe egin behar duk, pentsatu! Gerri-jokoa egin behar diok eta, behetik gora natorrela uste duenean, goitik behera sartu ukabilkada. Estiloa zaharkitua dik, baina desbideratu egin zidak kolpea ezkerrekin. Boxeatzen ez zakik, indarra besterik ez zeukak. Ikusten duk nola dantzatzen duen? A ze piura. Klasea eta estiloa ez dituk botikan erosten.

BI

Eutsi, eutsi, ez etsi. *Ez, seme, nik ez diat nahi boxeolari izan hadin. Erosi liburu bat, nik esango diat. Ikusten duk nire aurpegia? Ebakiz josia zagok, itsusi. Joan hadi eskolara, eta utzi bakean Zurututza, ezin duk ringarekin amestu. "Fat City" esan ekartzeko dendakoari, Leonard Gardner esaiok, agian ez dik ezagutuko, nik pagatuko diodala. Gimnasioan esana diat, ez uzteko sartzen boxeolarien aldera. Etxean bat nahikoa duk. Sokan saltoka ikusi hinduten joan zen astean. Swing hori, ondo, kontuz! Gehiegi hurreratu zaidak alu hori. Aurpegi itsusiarekin nola egingo duk neskatan?! Ikasi ezak, ofizio bat besterik ez bada ere. Erabili eskuak kableak lotzeko edo motorrak konpontzeko. Ukabilkadek ez diate ezer konpontzen. Swinga, hori duk eta! Hanka jokoa, bat, bi. Dirua ere eurek eramaten diate, apoderatuek, entrenatzaileek, zer uste buen ba? Guk kolpeak eramaten dizkiagu etxera. Ederra sartu zidak! Ez iezadak despistatu. Burdin gustua igartzen diat ezpainenetan, zartatu zia! Emakumeak ere eurenak dituk. Aire behar diat, ahotik. Amoniakoa, bai, pizteko, sudur-zuloetatik biriketaraino. Itzuli, itzuli iezaiok, bestela egin dik hireak. Kazetariak ere erosita zeudek, borrokaren aurretik idazten dizkiate zutabeak. Utzi bakean toalla, ukitu ere ez! Bizirik nagok, lasai, nahikoa duk, ken ezak amoniako puta hori! Puntaka bat nahiko ezpainenetan, ez duk ezer. Jarri babeslea, azkar, kanpaia jo aurretik!*

HIRU

Izorratu hadi, ederra sartu diat. Jendea ere oihuka sumatzen diat. Ez diat beldurrik, akabatuko haut, garai batean jasotzen nizkian harriak baino gogorrago utziko haut. Gimnasioan azaltzen babaiz, hireak egin dik, seme. Nork esan dik Atlantic Cityra joango haizela? Gau erdiko hontzaren eztula, seme. Irakurri ezak liburu bat, ez dik kalterik egingo. Nik

esango diat. Redios! Ez nian espero, despistatzen ari nauk! Sokak seinaka ikusten dizkiat. “*Negro Ortega*” *esaiok dendarriari, Abelardo Castillorena, ez dik jakingo eta, nik pagatuko diodala*. Besoa gora, babestu hadi, soketan hartu indarra, tori gantxoa! Matrailezurra okertu al zaik! Izorra hadi! Redios! Ez al duzue ikusi? *Golpe bajo*, kaskabiloak igurtzi zizkidak eta! Nondik atera duk hori, hanka puntetan dantza eginez? Toalla uzteko, joder, okurritu ere ez botatzerik, hireak egin dik, bestela. Ez diat ondo ikusten, bekaina ireki zidak zerri horrek. Kanpaia behar diat, horrela ezin diat. Ea, sartu eskuma, beldurrik gabe, emaiok merezi duen modura. Bat, bi, hiru... Hori duk eta! Lastima! Belaun bakarraz ukitu dik ringa, hurrengoan musu emango diok ezpaineekin. Bekainean igartzen diat bihozkada. Kanpaia behar diat, arin!

LAU

Oraingoak ez zidak minik eman, aurpegia lokartuta zaukat. Hori zer dantza klase duk? Gixona dirudik! *Liburuak zertarako galdetzen al duk, seme? Eta zer izango haiz, sparring putabat? Horiek dohain aritzen dituk, eskerrik asko baten truke. Zertarako ikasi huen irakurtzen, hartzak liburu bat, joder, nik esango diat*. Mareatu egiten nauk dantza honekin, egon hadi geldi eta probatuko duk hiretzako espresuki gordetako gantxoa. Soketara, soketara joan hadi eta atrapatuko haut. Tori ezak, gustatu al zaik? “*Cincuenta a lo grande*”, *esaiok dendarriari, Hemingway, ezagutuko dik seguru asko, nik pagatuko diodala*. Redios! Ezin duk despistatu. Behazuna lehertu zidak kabroi honek! Kanpaia non duk, honezkero denborak egin dik berea, ahaztu egin al zaizue? *Arotza ere ez dek ofizio txarra, seme, egur usaina koipe beltzarena baino hobea duk*. Bat, bi, bat, bi, besoa aurrera, adi, bat, bi, keinua, bat, bi. Motzean ausart hadi! Zain naukak! Ez, ez, ez duk hainbesterako izan, bizirik nagok oraindik, utzi bakean toalla zikin hori, botatzen

NOCAUT!

baduk hireak egin dik. Ezker begiak eskuin eskuari, eskumak ezkerrari, adi! Alu hori, nola eraman nauk sokekin dantza egitera? Ibil hadi jolasean eta Jimmy Doylearen bidea jarraituko duk, nocaut!

BOST

Kanpaia dagoeneko? Kendu amoniakoa, sartu babeslea, arin. Ezpainik ez diat nabaritzen. Lasai, hartu gogotik arnasa. Zirauna ematen duk batetik bestera. Paretaren kontra joz entrenatzen al haiz? Kontuz, ia sartu zidan behetik gora. Distantzia mantendu ezak, beso bat, bi, dantzan, utzi egiten, nekaturuko duk. Eskuina indartsua daukak, alu horrek. *“El combate”, bestela, esaiok izena eta abizena dendariari, ez dik ezagutuko eta, Norman Mailer, Mailer esaiok, nik pagatuko diodala. Titulua nahi baduk, hobe bestelakoa, seme.* Kontuz eskuinarekin, ia sartu zidak berriro. Begiratu ondo bere eskura, etorri aurretik igarri behar duk. Gandua ikusten diat, ordea, ixten ari zaidak ezker begia. *Ikasi ezak, esaten zidaan hire amonak. Erabili eskuak kableak lotzeko eta motorrak konpontzeko. Eta ikusten duk, ezkutuan joaten nituan gimnasia, gizon egitera. Gizon egitera!* Egon hadi, eutsi, bazetorrek kanpaia eta! Utz iezadak airea hartzen, apur bat. Redios, azkenean lortu duk, alu horrek. Eskuinari begira eta eskuina sartu didak, mardikatu horrek. Redios! Oraindik ez al dira pasa hiru minutuak!

SEI

Nik pagatuko diodala esaiok dendariari. “La noche de Mantequilla” ere bikaina duk, gustatuko zaik, Hemingway esaiok, ezagutuko dik Hemingway norbait ezagutzekotan, nik pagatuko diodala. Zalantzan ikusi diat toalla, okurritu ere ez, ohartarazi diat lehen ere. Altxatzeko gauza ez naizela pentsatzen al duk? Egon hadi apur bat, aire pixka bat, besterik ez

diat behar. Kanpaiak entzuten dizkiat neure buruan. *Ipini hitzak kableak, seme. Egur usaina ere ederra duk.* Justuegi eman diat gaur baskulan. Zenbatean doa kontua?

ZAZPI

Lasai, altxatzera noa. Ken ezak amoniako puta hori nire bistatik! Ez nazala horrela ikusi semeak. *Ikasi ezak, eskertuko duk. Marcel Cerdan izan nabi nian eta Edith Piaf kantariaren maitasuna lortu. Hura ere ez buen ringean geratu. Hegazkin istri-puz hil buen Marcel handia, New Yorkera zihoala, boxeatzera eta Edith Piafekin elkartzera. Maitasuna ere beste ring bat duk, seme. “Más dura será la caída” irakurri behar duk. Apuntatu ondo, Budd Schulberg, bai, “s” hasieran duela. Nik pagatuko diodala esan dendariari. Ez duk utziko behin hasita. Kontaketa horretatik ez haiz lehen bezala altxatuko, orbain itzela utziko dik. Noren alde egin duk apustua, seme?*

ZORTZI

Jainko maitea, berorri ez al zaio boxeo gustatzen? Lagundu behar lioke seme honi. Eta hi zertan ari haiz kontatzen atzamarra altxatuta? Hau ez duk horrela akabatuko. Galdu diat kontua. *Zertarako ikasi buen irakurtzen, seme? Gizon handiak dituk idazle horiek, baina antzekoak gaituk, antzekoak. Ez ezak barre egin, serio ari nauk. Guk promotorea diagu, eurek editorea; guk managerra, agente literarioa eurek; guk entrenatzailea, estilo-zuzentzailea haiek. Beno, handiek, ezagunek. Konturatzen haiz? Baina kanpaiak jotzen duenean dena bigarren mailakoa duk. Biluzi eta bakarrik hago kanpoan, lanpara azpian. Joder! Despistatuta habil berriro. Bigarren bekaina ireki zidak alu horrek!*

BEDERATZI

Kanpaia jo al dik? Zerbait entzun diat. Zer egiten dik toalla puta horrek hor. Odolduta zagok, ekartzak garbia! Ur hotzarekin busti behar duk, joder! Oraintxe altxatuko nauk, egon. Bai, egon. Ez zakiat zer gertatzen zaidan, belaunak ahulduta zauzkaat. Ez al dakik geldiago kontatzen? Eta hik, zer egiten duk besoak altxatuta, pater nosterra errezatu behar al duk? Oraindik ez dik kanpairik jo, babalorea! Zer ari haiz ospatzen?! Hurrengoan harrapatuko haut. Davey Mooreren hortzeria baino txikituagoa utziko diat kaskezurra, *punch drunk*. Aire behar diat, arin. Non sartu duk amoniakoa. Kontatzen jarraitzen dik epaile xurito honek, baina kontua aspaldi galdu nian. *Porrota duintasunera heltzeko eta ringetik jaisteko beste modu bat duk. Horrexek elkartzen dik boxeoa bizitzarekin. Nork esan zian hori? Ez huen askotan ringera altxatu. Nik nahiago diat xake-jokoa bezalakoa dela esatea, seme, arazoei aurre egin behar zaiek, baina pentsatzeko denborarik gabe, ekin egin behar diok, buruak pentsatu egin behar dik, informazioa ordenatu, arriskuak eta aukerak neurtu. Horregatik ez diat nahi gimnasia joan hadin. Ez duk ulertuko, bazakiat. Tira, nire mesanotxean topatuko duk, "Torito" izena dik, usaindu ezak, tinta freskoa, atera berria duk, Julio Cortazar, boxeoz asko zekik horrek, gorde izena, seme, gauza handiak idatziko dizkik horrek. Eta utzi bakean Zurututza, muturrean jo buela kexaka etorri buen ama herenegun.*

HAMAR

Joxemari Urteaga Garmendia